



5. KANALAK:

Enpresa batean, kanalen kudeaketa oso garrantzitsua da, horiei esker ezagutzen dute bezeroek gure enpresa eta beraiengana heltzen da. Horretarako, gure enpresak izango dituen kanalen sailkapen bat egin dugu:

- **BANAKETA KANALAK:** Gure enpresa onlineko zerbitzu enpresa bat da, gure zerbitzua era zuzen batean heltzen da gure bezeroengana, inolako bitartekaririk gabe, gurea delako aplikazioa eta gure aplikaziotik bakarrik eskuratu ditzaketelako zerbitzuak, beraz banaketa kanalak ez dira beharrezkoak.



- **KOMUNIKAZIO KANALAK:** Gure enpresaren publizitatearen sare sozialetan izango da beraz iragarkien atal nagusia sare sozialetan oinarrituta egongo da (instagram, facebook, twitter...)



Iragarki baten adibide bat hau izango zen:



Nahiz eta publizitateen atal nagusia sare sozialetan egon, hiri handien kaleetan (Bilbo, Barakaldo, Eibar, Donosti...) iragarki batzuk jartzea ere erabaki dugu, iragarkiaren formatua sare sozialetan dagoenaren berdina izango da. Hortaz aparte jendeak gure enpresa ezagutzeko beste modu batzuk ere ditu, adibidez, eskolatan emango ditugun hitzaldiak.

- **SALMENTA KANALAK:** Gure zerbitzuak aplikazioaren bitartez salduko ditugu, aplikazioa AppStore edo PlayStore-en bitartez deskargatu daitekeelarik. Gure sare sozialetan ere (instagram, twitter, facebook...), aplikazioa deskargatzeko link-a ere jarriko dugu, zuzenean eta era erraz baten mugikorrean izateko.

